| | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lanaren banaketa** | Lana era zuzen batean banatu dugu eta guztiok hartu dugu parte lan guztietan. | Batzuk besteok baino lan gehiago egin dute. Hala ere, guztiok hartu dugu parte lan guztietan. | Batzuk ia lan guztia egin dute eta beste batzuk ia ezer ez dute egin; gainera, zenbait lanetan baten batek ez du ezer egin. | Batzuk lan guztia egin dute eta beste batzuk ezer ez, eta arazoak izan ditugu lanak amaitzeko. | Taldeko kide guztiek ez dugu ia lanik egin eta arazo asko izan ditugu gauzak amaitzeko. |
| | | | | | |
| **Gure arteko jarrera** | Gure arteko jarrera oso ona izan da eta ez dugu inolako arazorik izan. Bestalde, sortutako desadostasunak hitz eginez konpondu ditugu. | Gure arteko jarrera ona izan da, baina arazoren bat agertu da eta irakaslearen laguntza behar izan dugu arazoa konpontzeko. | Gure arteko jarrera nahiko ona izan da, baina askotan arazoak izan ditugu gauzak adosteko eta irakaslearen laguntza askotan behar izan dugu. | Gure arteko jarrera ez da ona izan eta irakasleak ia gehienetan konpondu dizkigu arazoak, gure kabuz ez baikara gai izan. | Gure arteko jarrera txarra izan da eta batzuk besteekin haserretu dira. Gainera, irakaslea ia momentu guztietan gure alboan egon da arazoak egon ez zitezen. |
| | | | | | |
| **Beste taldeetakoekin izandako jarrera** | Beste taldeetakoekin oso jarrera ona izan dugu eta beti errespetuz hitz egin diegu. Gainera, galdetzen zizkiguten gauza guztietan lagundu diegu eta eskatzen zizkiguten gauza guztiak eman dizkiegu. | Beste taldeetakoekin jarrera ona izan dugu, baina momenturen batean ez dizkiegu gauzak ondo eskatu edo galdetu dizkiguten gauzei era egokian erantzun. | Beste taldeetakoekin jarrera ona izan dugu gehienetan, baina momenturen batean eztabaidaren bat izan dugu eta irakaslearen laguntza behar izan dugu. | Beste taldeetakoekin jarrera nahiko ona izan dugu, baina behin baino gehiagotan eztabaidak izan ditugu eta irakaslearen laguntza askotan behar izan dugu. | Beste taldeetakoekin jarrera txarra izan dugu eta momentu guztietan irakaslea gure alboan egon da arazoak egon ez zitezen. |
| | | | | | |
| **BATEZBESTEKOA** | | | | | |